

1963-ko Apirillaren 26-an, eguerdiko amabietan, egin da Euskaltzaindiaren bilkura, Donostian, Gipuzkoako Diputazioaren jauregian.

Etorri diran euskaltzaiñak, auek izan dira: Lojendio, Lekuona, Lafitte, Dossanco, Mitxelena, Irigarai, Akesolo, Erkiaga, Villasante, Gorostiaga eta Arrue.

Urgazleak, berriz: Irigoien, Larzabal, Satrustegi, Zugazti, Loidi, Artola, San Martin, Etxaniz eta Aita Zavalala.

Oi dan otoitzarekin asi da batzarra.

Lojendio jaunak, euskaltzainburu bezela, agur-itz batzuk esan ditu, euskaltzaiñek egin dioten izendapenaren gaia ez tala esanaz eta Ignazio Maria Etxaide azkeneko buru zana gorai patuz. Gaurko batzarren egitaraua irakurrita, euskaltzaiñei eskatu die batzarretara lan batzuk ekarri ditzaten, lan oien gaia amabost egun aurretik adieraziz, era ortara batzarreko egitarauan garaiz sartu al ditezen. Gero Bilbon gertatuaren zurtasuna dala ta, aurreko batzarrean eskatu zanari erantzunaz: "Alfonso Irigoien jaunak zintzo jokatu du —dio—. Polizia bat etorri zitzaion, erantzun zuurak eman zituen, gizon jokatu du. Gure eskuetan utzi zenuen gauza au garbitzea, eta egin degu". Ondoren dio, Severo Altuberen omenez zerbait egin bear litzakela. Bera da euskaltzaiñetan zaarrena eta ainbeste lan egindakoa. Danak ao batez ontzat ematen dute asmo au. Euskaltzainburuaren iritziz, batzar guztiak Donostian egitean ezta on. Urrengoa Beloken egingo da, Iratzederren sarrera-itzaldia dala ta. Eta urrengoa Gernikan, Severo Altube-ren omenez, an bizi baita bera. Azkenik eskatzen du Alfonso Irigoien jauna **Eusker**a aldizkariaren zuzen dari izendatua izan dedilla, Euskaltzaindiaren agerkari au orain arte ere bere alegiñei eskerrak ateratzen dan ezker. Eta ala erabaki da.

Mitxelena jaunak lan bat irakurri du "beharki" itzaz.

Arrue jaunak beste txosten bat ekarri du "ima" itzaz.

Irigarai jaunak beste lan bat irakurtzen du Nafarroako esakera batzuei buruz.

Elkar izketa sortu da itz eta esakera batzuen gaiñean.

Dassance jaunak dio Maiatzaren 18-an Iratzederren sarrera-itzaldia egingo dala Beloken. Eta Belokeko Aita Gabriel Lertxundi ere, egin dituen lanengatik, urgazle izendatu dedin eskatzen du. Baiet, erabaki da.

Aita Zavalak dio Maiatzaren 12-an, Ernanin, Txirrita bertsolariaren omenaldia egingo dala.

San Martin jaunak Eibarren egindako ume-sariketaren berri eman du. Eskerrak eman bekizkie antolatzailliei.

Gero Aita Villasantek jakiñarazten du nola argitaratu dan leenbiziko aldiz Aita Añibarroren iztegi zaarra, eta ale bat eskeintzen dio Euskaltzaindiari.

“Oargi” Tolosako taldeak eskatzen du sariketa batzuk eta festa batzuk egin ditezen Orixen omenez. Erantzun bekio baietz.

Mitxelena jauna Urkijo Mintegiko zuzendari egiña izan da. Eta euskaltzainburuz gainera, beste bi euskaltzain eskatzen ditu Mintegirako. Arrue ta Irigarai jaunak izendatu dira.

Azkenean Lojendio jaunak dio euskal eskoletarako liburu egoki batzuen premian gerala. Eta San Martin jaunari eskatu saio gai onezaz txosten bat ekarri dezala.

Eta beste gabe, oi dan otoitzarekin, bukatu da batzarra.